

**VISITA A LA FUNDACIÓN LABAYRU
LABAYRU FUNDAZIOra BISITA**

2017-06-14 Derio 14-06-2017

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua eta Labayru-ren kideok, zuen gonbidapena eskertzen dot eta pozik nator egoitza honetara.

Gogoan dot irakasle-eskolako ikasle nintzala eraikin honetako ikasgeletan landu nebala nire euskerea. Hemen alfabetatu nintzan, Labayruk eskaintzen ebazan udako ikastaro trinkoetan. Nire modura milaka eta milaka lagun izan ziran Labayruk eskaintzen ebazan ikastaroetan euskereagaz eben lotura indartu ebenak.

Asko gara Labayruri aitorten hau egiten deusagun gizon emakumeak eta, uste dot, askoren iritzia azaltzen dodala sasoi hartaz gomuta gozoa gordetzen dogula esaten badot.

Helduen alfabetatzean dana egiteko egoan urte hareetan. Oso garrantzitsua eta eskuzabala izan zan Labayruk egin eban ekarpena. Horregatik, 40 urte betetzera doan aldi honetan, beharrezkoa da gogoratzea eta jendaurrean aitortzea. Euskararen berrindartze, biziraupen eta transmisioaren erronkan asko izan dira pisua eta ereina izan daben gizarte eragileak. Zalantza barik Labayru ikastegia izan da puntakoetako bat. Eskerrik asko beraz.

Labayruk 40 urte honeek etorkizunari begira ere ospatu nahi izan dauz. Euskerak aurrera pausu handiak eman dauzan arren, erronkak daukaz oraindik. Euskalduntzeagaz jarraitzea, euskal hiztunen komunitatea gero eta handiagoa izan daiten, euskarak gero eta euskal hiztun gehiago izatea. Baita be, euskaldun horreek berbetan jartea, euskara buru eta bihotzetik ezpainetara eroatea. Hau da, gure hizkuntzaren erabilera bermatzea, alegia. Etorkizuneko bide honetan, Labayru bidelagun behar dogu eta izan gura dogu. Auzolanean lankide eta bidelagun.

Aipatu gura dot, baita be, Labayruren zerbitzuen zerrenda ez dala euskera eta literaturaren munduan amaitzen. Etnografiaren arloan egin dozuen ekarpena be

bikaina izan da. Aipagarria da Jose Migel Barandiaranen gidaritzapean Bizkaian sortutako Etniker taldeek Labayruren eskutik izan daberen jarduna. Azpimarragarria da Etniker taldeek herriz herri egin daberen bilketa lana.

Gure izaeraren eta kultura tradizioaren ezaugarriak, kultura modurik zabalenean hartuta, jasorik geratu dira ondorengo ezagutzarako. Ezagutza hori modu sakon eta sistematikoan geratu da jasota Euskal Etnografia lan bikainean. Kultura ikusteko eta munduan egoteko modu bat da Euskal Herriko Atlas Etnografikoa.

Gure aurreko gizon emakumeek munduaren lur zati honetan bizitzeko garatu eben mundua eta modua erakusten deuskue. Zer izan ginan eta zer garan ezagutzeko ezinbesteko tresna.

Labayruk egindako lanaren eta ekarpenaren zerrenda luzea da. Ezin ahaztu gaur hartzen gaituen Euskal Biblioteka hau. Hemen dago Labayruren funtsa eta oinarria. Liburutegi eta artxibategi zabala eta zehatza da. Danon artean osatzera goazen Euskal Liburutegi Nazional horren zutabe eta lankide ezinbestekoa.

Amaitzera noa.

Lau hamarkada honeetan iraultza sakon bat bizi izan dau gure gizarteak. Urte guzti horreetan, egunez egun, Labayru osatu daberen gizon emakumeak partaide, langile eta protagonista izan dira nazio eraikuntza horretan, asmoz eta jakitez.

Orain ere, aurrean doguzan erronka handiei aurre egitea jagoku. Nori bere arloan. Herri erakundeok konprometituta gagoz erronka berri horreei aurre egiteko. Baina, jakin badakigu, berebizikoa izango dogula gizartearen lankidetzatza. Abantaila bat badogu, ziur nago, datozen urteotan ere, auzolanerako prest izango dogula Labayru. Geu ere prest gaukazuez.

Zorionak beraz eta eskerrik asko!